

Herri programa proposamena
2019

Herri duina

ehbildu

Aurkibidea

1. Pentsioak.....	05
2. Enplegua	09
3. Politika soziala.....	13
4. Zerbitzu publikoak.....	19
5. Adinekoak	21
6. Aniztasun funtzionala	25
7. Etxebizitza	29

Pentsioak

Diagnostikoa, kokapena

Euskal pentsiodunen pentsioak igarotzen ari diren egoera, espainiar estatuan bezala, kezkarria da. Espainiar pentsio sistemaren bilakaerak, azken urteotan harturiko erabaki politiko okerrekin batera, gaur egun gure nagusien pentsioak ez epe ertainean ezta epe luzean ere ziurtatuta ez egotera eraman du; eta are gutxiago nahikotasun eta duintasun printzipioetan oinarriturik izatera. Egungo sistema eta horren finantziarioa egituratuta dauden moduan pentsioak arriskuan daudela baieztatu dezakegu.

Eskubidea izateaz gain, jasotzen dutenentzat duintasun eta esker on sozial balioa dute pentsio publikoek, eta hori nabarmendu behar dugu, jarduera urteetan zehar aberastasun eta ongizate sorrerako ahalegin kolektiboaren ondorio den heinean.

Izan ere, pentsioek Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanlegoaren laurden batentzat diru-sarrerara nagusia suposatzen dute. 675.000 lagun bizi diren bizitokiak ari gara, pentsioak adin aurreratuko pertsonen artean zabalduz den pobrezia- fenomenoaren prebentzio- mekanismo nagusietako bat izaki, gainera. Pentsiodunen %36ek pobrezia-aren atalasearen azpiko sarrerak dituzte (hilean 667€ baino gutxiagokoak), %16a ez da iristen hileko 500€-tara eta ia %60ak ez du gainditzen 735€-tako pentsioa. Arretaz begiratzen badugu bereziki larria den emakumeen egoera, kasik emakume pentsiodunen laurden batek ez du gainditzen hileko 335€-ak. Gaur egun, bakarrik 15.000 pertsona heltzen dira pentsioen osagarriak jasotzera DBEren bitartez EAEn. Hori guztiari erantsi behar diogu etengabeko erreforma eta murrizketen ondoriozko pentsiodunen erosteko-ahalmenaren galera, 2011tik %28koa dena.

Egun, itsulapikoa ia hutsik dago eta Espainiako gobernuak uko egiten dio finantzaketa eredu aldatzeari. Momentu honetan, gizarte-segurantzak 18.000 milioi eurotik gorako defizita du, 8.000 milioi euro eskaseko saldoa erreserba-funtsean eta ia 27.500 milioi euroko zorra. Egoera horren aurrean, estatuko botereek ez dute neurri errealistarik jartzen mahai gainean, eta gobernutik heltzen zaizkigun proposamen bakarrak pentsioak murrizten jarraitzera bideratuta daude. Baieztatu dezakegu, epe motz batean, egungo egitura mantenduz gero, pentsio-sistema kolapsatu egingo dela eta, hori dela eta, pentsioak jasotzea ere arriskuan egongo dela. Horregatik egiten dugu apustu orain bertan sistema pro-

pio baten oinarriak aztertzen eta ezartzen hastearen alde. Itsulapiko propioa izango duen sistema bat, oinarritzat gure herrialdearen gaitasun ekonomikoa eta langile guztientzako orainaldi eta etorkizun duina bermatzea ahalbidetuko digun kudeaketa zentzudun bat izango dituena.

Erradiografia honek argi uzten du arazoa sakona dela, egiturazkoa, eta zuzendu ezean, betiketuko dena eta hiritargo osoaren baldintza prekarioak areagotzea besterik egingo ez duena. Ez baikaude egoera koiuntural batean, baizik eta, pentsiodunen izenean hitza hartzen duten milaka pertsonen ongi dioten bezala, jokoan duguna ez da soilik haien ongizatea, zahartzaroa duintasunez eta baliabide nahikoez bizitzeko asmoa duen gizartearen etorkizuna baizik. Honen aitzinean, bermeak ematen dituzten premiazko soluzio eraginkorrak bilatu besterik ez dugu egin ahal eta behar. Gure adinekoak entzun behar ditugu, beren erreklamazioei erantzun eta etorkizun hobe baterako orain duina eskatzen duen gehiengo sozialaren zerbitzura jarri gure erakunde eta politikak.

Pentsioak jasotzen dutenentzat jarduera urteetan zehar aberastasun eta ongizate sorrerako ahalegin kolektiborako ekarpenaren ondorioz duintasun eta esker on sozial balioa duen lorturiko eskubide gisa eta ez pribilegio gisa ulertzearen premisa partekatzen badugu, pentsio duinak bezalako oinarrizko eskubideak berreskuratzen garamatzaten politika publikoak berrorientatu eta garatzeko erabakiak hemen eta orain hartzea beharrezkoa da. Bada garaia fokua hemen jartzeko, gure tresna eta gaitasunekin eta autogobernuaren praktikaren bidez egin dezakegun horretan, Madrildik pentsioen gainbeherarekin amaitzeko beharrezko neurriak har ditzaten presioan eta lanean etsi gabe.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, baita Nafarroan ere, gure erakundeek eskas agertu den egungo sistemaren erroa eraldatu ahal izateko dituzten eskumen mugaketak aintzat hartu eta horietaz jabetu behar dugu. Honek pentsio sistema definitu eta garatzen dituzten zutabe eta osagai nagusiak bakarrik estatuaren eskumen menpekoak direla suposatzen du. Baina era berean, lehenik eta behin populazio pentsiodunaren taldeari on egin diezaioketen neurriak aplikatzeko ditugun eskumen eta aukera legegile guztiak erabiltzeko aukera eta beharra aintzat hartu behar ditugu. Erabil dezagun gure autogobernua eta erakuts dezagun gai gara gure erakundeetatik euskal jendartearen bizitza baldintzak hobetzeko, Madrili itxaron behar izan gabe.

Helburu orokorra

Behar beharrezkoa dugu neurri ausartak hartzea, gehiengo sozialarekin batera, hainbat belaunaldik bizitza osoan zehar egindako lana eta ahalegina eskubide eta segurtasun osoz babesteko. Zentzu horretan, hurrengo lau urtetan aurrerapausoak eman beharrean gaude, euskal pentsio sistema publikoa duina lortzeko bidean. Bitartean, kudeaketa eta lege-garapena eskuratzea eta egungo pentsioak duinak izatea ziurtatzea ezinbesteko konpromisoak dira.

Horregatik gizarte segurantzaren eskumenen transferentzia eskatzen jarraitzearekin batera, erregimen gestioarena barne, 1080 euroko gutxieneko pentsioa 4 urtetan osagarrien bidez eskuratzeko neurriak eskatzen jarraituko dugu.

Gainera, euskal pentsio-sistema publiko batek soilik lor dezake pentsioen egungo egoerari konponbide eraginkor, iraunkor eta bermedun bat ematea, pentsio duinetan oinarritutako alternatiba bat eskainiz, pertsona guztiek pentsio bat jaso ahal izatea ziurtatuko duena. Baina sistema propio hori eraiki eta garatzeko, beharrezkoa da legegintzako tresna eta berme juridiko guztiak izatea. Horregatik, behin eta berriz defendatzen ditugu tresna subiranoak, gureak ez diren botere politiko edo juridikoekiko menpekotasunik ez dutenak, gizarte-babeserako sistema finkatzea eta zabaltzea ahalbidetuko digutenak, guztientzako gizarte-ongizatean oinarritutako herrialde baten oinarri gisa.

Fiskalitatea ezinbesteko elementuetako bat izango da pentsio txikienak 1080 eurora igo eta duin egiteko premiazko neurriak hartzeko momentuan, eta baita etorkizunean lortu nahi dugun eredu propioa sostengatzeko ere.

Hau guztia adostu eta kudeatzeko, eragile soziopolitikoei herri ituna proposatzen diegu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Pentsiodunen elkarteekin hitz egiteko une oro prest egotea

- Pentsiodunen mugimenduaren proposamenak bultzatzea.
- Egiten diren proposamenak erakundeen eremuan antolatzea, dagozkion eskumenen arabera.

2.- Eusko Jaurlaritzak pentsiodun guztientzako bizi-baldintza duinak bermatzeko dauzkan eskumen eta ahalmenak gauza daitezela bultzatzea

- Hartzaileak pobrezia kondenatzen dituzten gainerako pentsio guztiak (alargun-pentsioak, bereziki) osatzeko eta duinago bihurtzeko urratsak egitea.

- 2011ko eta 2013ko lan- eta pentsio-erreformen indargabetzea eskatzea.
- Arreta- eta zaintza-zereginengatik enplegu arruntean sartzetik izan ez duten pertsonen eskubide subjektiboa aitortzea.
- Erakunde guztiak koordinatzea, bakoitzak bere eskumenetik pentsio publiko duin batzuk lortzeko bidean aurrera egin dezagun.

3.- Pentsio duin batzuen aldeko Euskal Itun Soziala aktibatzea

- Goragoko erakundeekin eta salbuespen moduan prestazio ekonomikoak kudeatzea, pentsio guztiek, gutxienez, egungo Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren pareko zenbatekoa eduki dezaten.
- Goragoko erakundeekin batera, KPIa eta/edo batez besteko soldata urteko birbalarizaziorako erferentziazko faktore ezar daitezela bultzatzea, onuragarriena aplikatuz.
- Goragoko erakundeekin batera aurrekontu-nahikotasuna bultzatzea, pentsioen alorrean urtero bete beharreko neurri guztietarako.

Enplegua

Diagnostikoa, kokapena

Enpleguaren gaia, hainbat arrazoiengatik, pertsona gehienon bizitzan oinarritzko elementu dugu. Dauden arrazoi guztien artean, ziurrenik funtsezko eta agerikoena, enpleguari lotutako ordainsaria geure errenta-iturri nagusia dela izango litzateke. Ordainsari horri esker, ongizate maila onargarrietan geure beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak eskuratu ditzakegu.

Horregatik, ez da harritzeko enplegua herritarren kezka nagusiena izatea. Kezka horrek, beste garai batzuekin alderatuta, alde bikoitza du, enplegu eza ez ezik, dauden enpleguen kalitate txarra ere kezka iturri baita.

Enpleguaren gaia ezin da harekin erabat lotuta dauden beste errealitate batzuetatik deslotu: alde batetik lan erreproduktiboa, aintzat ez hartzea eta banaketa desberdin eta bidegabea emakumeen kaltetan; bestetik, diru-laguntza eta prestazio sozialen menpeko landun pertsonen kolektiboa areagotzea. Kolektibo horretan ez dira langabeziaren prestazioa jasotzen dutenak barne-biltzen, langabeziagatiko laguntzarik ez duten epe luzeko langabetuak, familiaren elkartasunaren era errenta-publikoen programa ez nahikoen menpeko direnak ere baitaude. Halaber, ordainsaridun enplegu bat izanda ere, egungo lan-harremanen eta soldaten prekarizazio-prozesua dela eta, pobrezian dauden langileak ere bertan barne-biltzen dira.

Zentzu horretan, pobrezia aurrean babesteko oinarritzko mekanismoa eta eskusio soziala ekiditeko bide eraginkorra da.

Azken hamarkada hauetako ofentsiba neoliberalaren fronte nagusienetako bat, sektore publikoarekiko erasoarekin batera (esku hartze publikoaren desarautzea eta uzurtzea esparru produktiboan zein sozialean), langileek hazkunde ekonomikoaren banaketan geroz eta parte-hartze txikiagoa izatea izan da, soldatak jaitsiz, langabezia areagotuz eta lan-eskubideetan atzera urratsak emanez.

Euskal Herrian lan-esparruan inongo eskumenik ez izatea erabat kaltegarria da, errentaren banaketan eta kohesio sozialean ez ezik, geure ehun produktiboaren etorkizunari dagokionean ere, prezioen ara-

berako lehiakortasuna eta langile-kopuruak azkar murriztuz malgutasuna lehenesten baititu. Adibide batzuk jartzearen, hego Euskal Herrian 150.000 langabetu baino gehiago dago, horien arteko %61ak langabezia-saririk jasotzen ez duena, eta emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala handitzen jarraitzen duelarik.

Langabetu horien %58 gazteak dira, eta gazteen %95,5ak behin behinekotasun egoeran egiten du lan. 35.000 pertsona baino gehiagok jasotzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta (RGI gazteleraz) enplegua izanik ere eta ia enplegu guztiak (% 96) aldi baterakoak dira, horien erdia hilabete baino gutxiagorako. Beraz, epe luzeko egiturazko langabeziak ez ezik, pobrezian dauden enplegudun langileez ere hitz egin beharrean gaude.

Helburu orokorra

Gure helburua enplegu-politika osoa ezartzea da, eraginkorra, gizarte aurreratu baten nahiarekin bat datorrena eta gure ekonomia-ehunak etorkizunean irauteko estrategia baten barruan kokatua. Gizarte-justiziaren eta giza garapenaren ikuspegitik, aukera erreal bakarra proposamen sendoak taxutzea da. Horrelakoek, enplegua lehentasunezko helburutzat izateaz gain, gaur egungo garapen-eredu kapitalistaren mugak ere hartu behar dituzte kontuan, bai ingurumenaren zein ekologiaren arloari dagokionez, bai arlo sozialari dagokionez ere. Halaber, erreprodukzio-lana ere barne hartu behar dute eta gizarte- eta lan-baldintzak ezarri behar dituzte, lan horri modu kolektibo eta ekitatiboan ekiteko.

Enplegu-estrategiak, Euskal Herriko egoera soziolaboralari erantzun nahi badio, asmo handiko jarrera batetik heldu beharko dio erronka zail horri, egoera horren erabateko eraldaketa bilatuz, hain zuzen ere. Hori horrela, hiru esku-hartze lerro hauek proposatu nahi ditugu: enplegua sortzea (publikoa zein pribatu eta kooperatiboa), lana banatzea eta dauden enpleguetan (baita berrietan ere) lan-baldintzak duintzea.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Lan-baldintza duinak aplikatzea kontratazio publikoaren eskutik

- Obra publiko guztietan lurraldeko lan-hitzarmenetako baldintzak betetzen direla bermatzea.
- Lan-erreforma aplikatu gabe klausula sozialekin diharduten enpresak lehenestea eta bultzatzea.
- Aldi baterako laneko enpresarik ez kontratatzea, eta kontratatzen dituzten enpresekiko harreman eta kontratu ekonomikoak berrikustea.
- Gaur egun pribatizatuta dauden zerbitzu publiko guztiak berrikustea, publikazio-prozesuak aktibatzeke.
- Erakundeak egiten dituen erosketa publiko eta kontratazioetan klausula sozialak biltzea.
- Lan-osasuna babesteko eredu bat sortzea, prebentzioa, prestakuntza, ikuskapena eta eredu hori antolatu eta finantzatzeko gaitasuna barnean hartuta.

2.- Soldata-aldea desagerraraztea

- Funtzio publikoan sartzean zein beste hainbat mailatan —ordainsariak, prestakuntza, maila-igoerak, etab.— Administrazioan diharduten gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna ahalbidetzeko neurri multzo bat integratzea.

- Gizarte osoarentzat zerbitzu jakin batzuk sustatzea (0-3 urtekoak, etxez etxeko arreta, egoitzak, etab.), gaur egun bereziki emakumeen ardurapean dauden etxeko lanak eta zainketa-lanak esparru publikoaren esku uzteko bidean aurrera egiteko.
- Aurrekontu-arloan zein arlo pertsonalean, dependentziarako arreta eta zainketa-lanak esparru publikotik bultzatzea.

3.- Ingurunean kalitatezko enplegua bultzatzea

- Soldadari eutsiz, lana banatzearen eta kalitatezko enplegua sortzearen alde egiten duten enpresei laguntzeko proiektuak martxan jartzea (diru-laguntzak, hobariak, etab.).
- Hainbat arrazoi direla-medio lan-munduan integratzeko zailtasunak dauzkaten sektoreentzako plan espezifikoak inplementatzea.
- Lanera lurraldetik kanpora joan diren gazteak itzularazteko estrategia espezifikoak aktibatzea.

Politika soziala

Diagnostikoa, kokapena

Gizarte-zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistema ahul baten aurrean gaude: diru hornidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu ezaugarri sistema honek.

Azkeneko lau urteetan, aipaturiko arazoak areagotu egin dira. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (hemendik aurrera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea), garatzeko 2015ean hartutako akordioak, Euskal Herria Bildu erabakigarria izan zelarik, sistematikoki urratuak izan dira. Horrela, adostutako finantzaketa ez da plaza eta zerbitzu berrietara bideratu, gizarte-zerbitzuetarako dauden beharrak eta eskaerak ez dira erantzun eta euskal herritarren eskubideen aitortpena baldintzatuta dago bizi diren tokiagatik –udalerrria eta/edo herrialdea–.

Gizarte politikek eragin berezia dute zainketen alderdi batengan, konkretuki, alderdi espezializatu eta intentsiboenetan. Hego Euskal Herrian zainketa lanak familiek egiten dituzte eta, bereziki, emakumeek. Gainera, lan hauek merkaturatzen direnean, emakumeek hartzen dituzte, askotan, baldintza prekarioetan. Errealitate hau ez da emakumeek askatasunez hala erabaki dutelako. Zainketaren etika erreakzionarioaren inposizioan du oinarria eta honi gehitzen zaio politika publikoek sistema familiarista osatzeko duten eragina.

Krisi garaian, familiak izan dira ongizatean ezarritako murrizketa basatien eragina leundu dutenak eta, bereziki, emakumeak. Hazkunde ekonomikoarekin batera, bukatu egin da sistema publikoari zuzendutako zainketa eskaeraren uzurtze artifiziala; administrazioek, ordea, ez dute behar bezalako erantzunik eman, zainketa lanen ardura nagusia emakumeengan jarriz berriro. Beste behin ere, baieztatzen da emakumeentzako krisia ez dela bukatu.

Helburu orokorra

Zaintzen krisiaren aurrean zainketa duinak eta kalitate onekoak bermatzeko lan egin behar dugu: Alde batetik, zaintzeko eta zaintzak jasotzeko erabakia askatasunez hartzeko beharrezkoak diren prestazioa eta zerbitzuak bermatuz. Alegia, zainketek egokiak eta libreki aukeratutakoak izan behar dute. Norberak askatasuna izan behar du aukeratzeko nola zaindu nahi duen bere burua, nola nahi duen besteek bere burua zaintzea, edo nola, zenbat eta nor zaindu nahi duen. Beste aldetik, Gizarte-zerbitzuetan soldata duinak garantizatuz, langileen lan baldintzak errespetatuz eta ahaztuta utzi izan den gizarte sektore bat ikusaraziz. Duintasunaz ari garenean eman eta jasotzen diren zainketak kantitate eta kalitate nahikoa izateaz ari gara. Baina batzuek zainketa duinak izateak ezin du izan beste batzuek zainketa prekarioak izatearen kontura.

Testuinguru honetan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritako markoaren ahuleziak agerian geratu dira; estaldura eta prestazio eta zerbitzuetarako sarbide desberdinek hauen emaitza dirrelarik. Beraz, gure ekinbide estrategikoak gaur egungo eskuduntza banaketa gainditu behar du, zuzeneko ardura publikoko, unibertsala eta herrialde guztietan ezaugarri berdinak izango dituen Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistema sortzeko bidean; hau izango baita euskal herritarren gizarte-eskubideen aitortza eta gauzapen osoa bermatuko duena.

Aurreko helburua lortzen den bitartean, gure lehentasuna izango da herritarrei bermatzea 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrori buruzkoa (hemendik aurrera, Zorro Dekretua), jasotako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea, beharrezkoak diren estaldura eta intentsitateekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzeko tresnetan jasotako helburuak berraztertuz, horiek areagotzeko. Lurralde errealitate desberdina aintzat hartuz, ezberdinak izan beharko dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta herrietan garatu beharreko ekintzak.

Askatasun erreala ezin da eman hau gauzatuko dela bermatuko duten baldintza materialik gabe. Halako baliabiderik ez dutenak hirugarren pertsonen borondatearen esku daude biziraun ahal izateko. Horregatik, uste dugu mundu guztiak izan behar duela existitzeko eskubidea bermatuko duen oinari material edo errenta minimoa.

Diru sarrera faltak herritarren parte bat pobrezian nekez bizitzea dakar, baina pobrezia eta gizarte bazterketa desberdintzea komeni da. Azken honek ez du dimentsio ekonomikoa bakarrik. Pertsona baten bazterketa definitzen dutenak enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte harremanak eta parte-hartze politiko eta soziala dira, besteak beste. Horregatik, gizarte bazterketaren kontrako jarduerak gizarte zerbitzu, osasun, etxebizitza, hezkuntza edo enplegu politika integralen baitan artikulatu behar dira, bai eta hirigintza, garraio edo kulturatik ere.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea unibertsala

- Gizarte-zerbitzuetarako aurrekontua handitu.
- Itxarote-zerrendak murriztu plaza eta baliabide berriak sortuz eta dauden estaldurak handituz. Kontuan hartuko ditugu, batez ere, biztanleko estaldura txikiena duten lurraldeko guneak, plazen okupazioan errotazio baxuena duten zerbitzuak eta deszentralizazio, komunitate arreta eta gertutasun irizpideak.
- Gizarte-zerbitzuen koordainketa pixkana-pixkana gutxitu. Ordaintzetik libre dauden minimoak handitzearen bidez eta osasun eta asistentzia zerbitzuen doakotasunaren bidez aurrera egitea.
- Zerbitzuen kalitatea hobetu sektorean diharduten pertsonen lan-baldintzak hobetuz. Artatutako pertsonen eta zainzaileen arteko ratioa handitu. Zainzaileen soldata-baldintzak hobetu, eta lan-hitzarmenak sustatu horrelakorik ez duten sektoretan.
- Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa sendotu: kontratatutako eta itundutako baliabideen ikuskapena eta ebaluazioa eta zuzeneko kudeaketa handitu, irabazi asmoa duen sektore pribatuaren esku-hartzea mugatuz.
- Zerbitzuak emateko lehiaketetan klausula sozialak txertatu, besteak beste, kalitate teknikoari eta berrikuntzari lehentasuna emanez irizpide ekonomikoen aurretik.
- Oinarrizko Gizarte-zerbitzuen gizarte-lanari protagonismo handiagoa ematea.
- Elkarte, erakunde eta administrazio publikoaren arteko egiazko koordinazio eraginkorra.
- Esparru soziosanitarioa garatzea eta bultzatzea, Gizarte-zerbitzuen eta Osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartuz:
 - Plaza soziosanitario gehiago sortzea. Eskualde bakoitzean.
 - Gaixotasun mentala duten pertsonentzat errehabilitazio programa komunitarioak, etxebizitzak eta errehabilitazio zentroak behar dira. Kale gorrian daudenentzat arreta programa bereziak martxan jartzea.
 - Gaixotasun mentala, eta portaera arazoak dituzten haurrentzat eta nerabeentzat arreta plan bereziak sortu behar dira. Errehabilitazio prozesuak aurrera eramateko.
 - Gaixotasun mentalaren esparruan, ikerkuntza bultzatu.
 - Dementzia duten pertsonentzat osasun arreta eskaintzea, bai komunitatean eta baita ere gizarte-zentrotan.

- Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat osasun arreta berezia eskaintzea, bai komunitatean eta baita ere gizarte-zentrotan.
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroetan esku-hartze terapeutikorako doako espazioak sustatu.
- Erabiltzaileek, herritarrek eta gizarte-eragileek gizarte-zerbitzuen plangintzan, garapenean, ebaluazioan kudeaketan eta erabakiak hartzean parte-hartze loteslea dutela bermatzea.
- Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen arteko topalekuak sustatu.
- Erabiltzaile eta profesionalen hizkuntza-eskubideen errespetua ahalbidetzea.

2.- **Dependentzia-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzea**

- Zerbitzuei lehentasuna ematea prestazio ekonomikoaren aurretik, eta, azken horien kasuan, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari –LPPE– lehentasuna ematea familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren –FIZPE– aurretik. Prestazio ekonomiko eta zerbitzu desberdinen arteko bateragarritasuna zabaltzea.
- Zaintzaile ez-profesionalei beren premiei buruzko balioespen bat jasotzeko eskubidea aitortzea eta herritar horiei laguntzeko zerbitzuak garatzea: laguntza psikologiko eta tekniko, prestakuntza, atsedeen hartzeko programak, eta abar.
- Ohiko ingurunean –familian eta jendartearen– kalitatearekin jarraitzeko aukera ematea eta sustatzea zahartze aktiboa, autonomia eta dependentzia prebenitzeko programak.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua indartzea arreta integraleko zerbitzu bihurtuz, haren prebentzio-alderdia garatuz, arretaren intentsitatea, prestazioen eskaintza, figura profesionalen kopurua eta zerbitzuko ordu-eskaintza handituz, eta koordainketa murriztuz.

3.- **Haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoak hobetzea**

- Neurri prebentibo eta sozioedukatiboei lehentasuna ematea neurri hertsatzaile edo kontrol sozialeko neurrien aurretik.
- Haur eta nerabeentzako prebentzio komunitarioko proiektuak sustatu auzo eta herrietan, toki-erakundeek zein kolektibo komunitarioek garatzeko modukoak.
- Esku-hartze programak bultzatzea babesgabezia-egoeran dauden familientzat.

- Ebidentzian oinarritutako programak bultzatzea.
- Kasu-erreferente den pertsonaren egonkortasunaren aldeko hautua egin.
- Egoitza harrerako egungo eredia berrikustea: programak, hezkuntza-estrategiak, profil profesionalak, ratioak, eta abar, egungo premia kuantitatibo zein kualitatiboetara egokituz.
- Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 dekretuak jasotzen duena bete.
- Babes-sistematik igaro ondoren familia-ingurunean txertatzeko aukerarik izan ez duten gazteen autonomia edo desinstituzionalizazio-prozesuak sustatu eta haiei erantzun ahal izateko programa eta baliabide ekonomikoak areagotzea: emantzipaziorako baliabideak, laguntza ekonomikoak, eta abar.
- Harrera-familia eredu desberdinak bultzatzea: larrialdietarako, profesionala, eta abar.
- Adingabeek dagozkien administrazio-prozesu guztietan parte hartzeko bidea erraztea.

4.- Gizarteratze-eredu ez-arautzaile bat bultzatzea

- Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak ahaldunduko dituen arreta-eredua adostu, baliabideak eskubidetzat joko dituen, ikuspegi laguntzailetik urrunduta.
- Laguntasunean, jarraipenean eta harremani begirako inklusioan ardaztuta dauden zerbitzuak eskaini.
- Sare publikoan gizarteratze-talde profesionalak indartu.
- Enplegu-zerbitzuekiko lotura indartzea.
- Zorro Dekretuan aurreikusita dauden baliabideak irekitzea.
- Etxerik gabe egonik buru-gaixotasunak dituzten pertsonen arreta egokia Osasun Sistemarekin koordinatzea.

5.- Pobreziaren aurkako borroka

- Gutxieneko errenta nahikoen programak bultzatzea, banakotasunaren, unibertsaltasunaren eta baldintzarik ezaren printzipioetan oinarrituta.

- Haurrentzako oinarrizko errenta bat ezartzea.

6.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen laguntza eta ahalduntzea

- Arreta hiru lerrotan egituratzea: aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa eta interbentzio psikosoziala, egoitza zentro eta pisuez gain.
- Egungo sarea langile gehiago eta koordinazio hobearen bidez indartzea.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei duintasun eta autonomia itzultzera bideratutako planteamendua.

Zerbitzu publikoak

Diagnostikoa, kokapena

Krisialdi ekonomikoaren testuinguruan eta horren aitzakia pean, herritarren oinarritzko babesa, aukera eta posizio berdintasuna eta bizi-proiektua ahalbidetu behar dituzten zerbitzu publikoak jo mugan izan dira etengabe. Pertsonal arloan zein baliabide materialetan murrizketak pairatu izan dira, horien kalitatea hondatuz, estaldura maila murriztuz eta inbertsioak –aruntak zein estrategikoak– apalduz.

Helburu orokorra

Herri baten duintasuna herritarren duintasunean oinarritzen da eta, zentzu horretan, kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitzea eta eskaintzea politika publikoen lehenengo eginkizuna eta ardura da, oinarritzkoena.

Datozen lau urteetan, helburu nagusia gure herria murrizketarik gabeko herria izatea lortzea da, egungo egoerari buelta emanez, galdutako hainbat eskubide indarrean jarriz eta, baita ere, aurrerapausoak emanez, babes mailan Europako herri aurreratuekin buruz buru jartzeko. Eta hori dena, langileekin lankidetzan, azken urteetan jaso duten zigorra eta mespretxua gaindituz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Kalitatezko zerbitzu publiko duin eta sozialen alde lan egitea, pertsona guztien premiei lehenetasuna emanez

- Herritarren eskubideak babestu beharraren ikuspegitik, zerbitzuen kudeaketa publikoari lehenetasuna ematea, giza baliabide tekniko nahiko eta egokiez hornituz.

- Herritarren parte-hartze benetako, efektiboa eta loteslea sustatzea, errealitate eta premia guztietara egokituz politika publikoen plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan.
- Sektore publikoaren kontratuetan klausula sozialak txerta daitezela sustatzea.
- Sektore publikoaren erosketetan gizarte-erantzukizuneko klausulak txerta daitezela sustatzea, eta haien jarraipena egitea betetzen diren edo ez ikusteko.

2.- Gardentasuna sustatzea, eta herritarrei informazio publikoa eskuratzeko bidea erraztea

3.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun benetako eta efektiboaren aldeko urratsak egitea

4.- Sektore publikoko langileen lan- eta gizarte-baldintzak hobetzea

- Lan-harremanen eredu berria.
- Zerbitzu pribatizatuak berreskuratu, lan-baldintzak mandeduz eta/edo hobetuz.
- Azpikontratatuak zerbitzuetan lan-baldintzak hobetu.
- Hizkuntza-normalizazioa.

Adinekoak

Diagnostikoa, kokapena

Adinduek osatzen duten herri-sektorea indarrez kolpatua izaten ari da; azken hilabeteotan kalean haien mobilizazioekin bete dira, pentsio duinak aldarrikatuz. Herri-sektore honen egoera larria estrukturala da, alegia, eremu orotan du isla, horregatik, pentsio publikoei eraso egitean, hauek lortzeko gero eta oztopo handiagoak jarritz eta haien etengabeko devaluazioaren ondorioz, adinduek eroste ahalmena etengabe galtzen ari dira; beraien bizi-kalitatearen narriadura muga guztiak gainditzen ari da.

Egun aplikatzen diren politika publikoek gabezi handiak dituzte pertsonen autonomia galtzeari koherentziaz eta modu egokian erantzuteko, besteak beste, autonomia pertsonala galtzearen prebentzioa sustatu beharko luketen aurreratze politikan hutsune nabarmenak daude, bakardadeari aurre egiteko politikan, berezko zaintzan, eta abar. Menpekotasun egoerei ingurunera egokitzeko politikek gabezi handiak dituzte –hirigintza, laguntza teknikoak, garraio egokituak– eta laguntza politikak ez dira nahikoak.

Adineko emakumeen parte hartze sozial aktiboa txikia izan bada ere elkarrekin, plataformetan, pentsiodunen mobilizazioetan ugari ikusi ditugu kaleetan dagozkien eskubideak aldarrikatzen. Hori dela eta, parekidetasunean eta arduren partekatzean urratsak eman behar dira, emakumeen presentzia aktiboa bermatu ahal izateko.

Helburu orokorra

Helduentzako bizitza baldintza duinak sortzea dugu helburu, pentsio duinak lantzetik hasi eta osasuna, etxebizitza eta parte hartze aktiborako eskubidea bermatzera arte.

Gaurko adinekoen errealitatea eta eskariak ez dute zerikusirik orain dela urte batzuetakoekin alderatuta. Egungo adinekoen gehiengoak osasunez ondo dago eta bere kabuz moldatzen da autonomia maila altue-

kin. Adineko askok ekarpenak egiten dituzte bere inguru hurbilean –seme-alabei ostatu edota laguntza ekonomikoa ematen, ilobak edo beste ahaideak zaintzen–, eta gizartean–boluntariotzaren bidez, elkarreetan eta gizarte mugimenduetan lan eginez–. Hori horrela, gizartearekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen dute helduek, eta eskari hori erabat zilegi da. Alde batetik, eskatzen dute beren aniztasuna aintzakotzat hartzea eta ez daitezela tratatu talde homogeen gisa, denak zaku berean sarturik. Beste aldetik, adinekoekin erlazio zuzena duten gaiak erabakitzen diren espazioetan parte-hartze eskubidea aldarrikatzen dute.

Hortaz, adinekoen parte hartzera, integrazioa, pertsona bakoitzaren berezitasunak eta duintasuna errespetatzera eta zerbitzu publikoen erabilera eta kalitatea hobetzera bideratutako neurriak hartu behar dira.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Adineko pertsonentzako bizi-baldintza duinak bermatzea

- Administrazio eta zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak indartzea adineko pertsonekin zerikusia duen guztian.
- Pentsio duinak babesteko lan egitea. Publikoaren, Ongizate-estatuaren eta lorpen sozialen defentsa bultzatzea, adineko pertsonen pairatzen dituzten egoera izugarri larriei aurre egiteko mekanismoak diren heinean. Adineko pertsonentzat oinarritzko diru-sarrerara batzuk bermatzeko konpromisoa hartzea.
- Tratu txarren aurkako eta adineko pertsonenganako errespetuzko tratu egokiaren aldeko kanpainak egitea.
- Pertsonen egoera eta premietara egokitutako laguntza- eta zainketa-politikak ezartzea, gizarteratzea betiere jomugan: tutoretzapeko apartamentuak; udalerrietan eguneko zentroak bultzatzea eta haien eskaintza handitzea; etxez etxeko laguntza; gizarte-etxeak bultzatzea, taldekako bizikidetza sustatuz adinen arabera, eta abar.
- Adineko pertsonen autonomiari eutsi diezaiotela sustatzea, hainbat alorretan –hirigintza-plangintzak, mugikortasuna, arkitektura-oztopoak, eta abar– bizi dituzten egoerei aurre egiteko eta dauzkaten premiak betetzeko.
- Funtsezko zerbitzuak landa-eremura hurbiltzea, eta landa-eremuetan garraio publikoko sareak indartzea.

2.- Adineko pertsonen jendartean parte hartzen dutela bermatzea

- Zahartze aktiboa sustatzeko politikak bultzatu, landu eta kudeatzea, adineko pertsonen gizarte-sarearekin elkarlanean.
- Eremu horretako elkarteekin elkarlanean, autoestimazioaren eta pertsonaren garapenaren aldeko mota guztietako jarduerak sustatzea, prestakuntza-, kultura- eta aisia-eremuetan.
- Berdintasun-politika egokiak bultzatzea, hala nola erantzukizunak eta lanak banatzea, adineko emakumeek elkarrekin eta bizitza sozian parte-hartze aktiboa izan dezatela bultzatzeko. Ahalduz Eskoletan eta Emakume Etxetan adineko emakumeentzako jarduerak espezifikoki biltzea.
- Adineko pertsonen parte hartzeko gune formalek bultzatu eta berrikustea, banan-banan eta elkarrekin gisa protagonismo handiagoa eta zeregin aktiboagoa eduki dezaten eragiten dieten politikak guztietan.
- Jendartean eragiteko kolektiboak eta boluntarioen elkarteak sustatzea, eta adineko pertsonen haitan parte har dezatela bultzatzea.
- Informazioa behar bezala eskuratzeko aukera eta foru- zein udal-administrazioarekin izapideak egiteko aukera erraztea.
- Baliabide-gida egokiak sortzea eta jendearen eskura jartzea, toki eta une egokietan.
- Tutoretza publikoa garatzea haren premia dutenentzat.
- Belaunaldi arteko ezagutza eta hurbilketarako politikak indartzea, ikastetxeetan programak bultzatuz eta adineko pertsona eta gazteen arteko harremana sustatuz.
- Adineko pertsonen jendarteari hainbat alorretan egiten dioten ekarpena nabarmentzea, agerikotasunik eza gehien pairatzen dutenen kasuan bereziki, hala nola emakumeak.

Aniztasun funtzionala

Diagnostikoa, kokapena

Instituzioetarako irisgarritasun unibertsala bermatu behar zaie herritar guztiei, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eta elkarteak sortuz.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta betebeharren subjektuak izatea lehenetsi behar da, eta horretarako dauden oztopoak murriztu, bazterketa ekonomikoki saritu/arindu beharrean.

Erakunde publikoen esku-hartzea ezinbestekoa eta urgentea da helburuak bermatzeko eta helburu horiek lortzera bideratzen diren baliabideak ondo eta zorroztasunez erabili daitezen.

Ezin dugu onartu behin-behineko salbuespena iraunkor bilakatzeko. Ildo horretan, guztiok elkarlanean jardun behar dugu gizarte eraldatzeko.

Instituzioek egin behar dute aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta aukerak berdintasuna diskriminaziorik eza eta bazterketarik eza oinarritzko giza eskubideak direla, eta hala ikusarazi behar diete herritarrei.

Hori legeetan ez ezik, pentsamoldeetan ere islatu behar da, eta eragina izan behar du eguneroko bizitzan eta gizarte harremanetan. Horregatik, kontzientziaziorako, errespetua sustatzeko eta aniztasun funtzionala giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartzeko mekanismoak inplementatu behar dira.

Helburu orokorra

estereotipo eta bereizketa desagertzea dugu helburu, egiazko aukera eta posizio berdintasuna bermatuz. Gainera, eremu honetako talde guztiei politiken definizioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte-hartzeko eta eragina izateko aukera bermatu behar zaie. Araudiak egiteko eta politikak diseinatzeko eta garatzeko prozesu guztietan aniztasun funtzionalaren gaineko inpaktuari buruzko txostena egin behar da.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen prestakuntza eta enplegua sustatzeko helburu nagusietakoa izan behar da, ikuspegi integraleko lurralde antolamendua zein mugikortasuna diseinatzearekin batera.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen enplegua eta prestakuntza sustatzea

- Teknologia eskuratu eta erabiltzeko aukera errazteko neurriak martxan jartzea.
- Prestakuntzari, lan-orientazioari, eskuragarri dauden baliabideei eta beste hainbati buruzko informazioa eskuratzeko aukera bermatzea.
- Enplegu-ekintza positiboak sustatzea aukera-berdintasuna bermatzeko.
- Enplegu publikoan diskriminaziorik eza bermatzea, kuotak ezartzea eta betetzea, lanpostuetarako egokitzapena erraztea, prestakuntzarako laguntzak ematea, eta abar.
- Sektore publikoaren kontratazioan klausula sozialak ezartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak baldintza duinetan kontratatzen dituzten enpresak sustatzea. Jarraipena egitea eta betetzen dutela kontrolatzea.

2.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen informazioa eskuratzeko aukera erraztea

- Azpigituluak jartzea, zeinu-hizkuntza eta audio deskribatzaileak biltzea administrazioak sortzen dituen ikus-entzunezko material guztietan, eta jardunbide horiek orokor bihurtzeko laguntzak ematea.
- Informazio publiko osoa eskuratzeko aukera erraztea, euskarriari, edukiei zein izapideak egiteari dagokienez.

3.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen hirigintza-irisgarritasuna erraztea

- Obra-proiektu guztietan irisgarritasunari buruzko azterketa eta dagokion jarraipena egitea.
- Obra publiko edo pribatu guztietan, irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dela bermatzea eta oztopoak kentzea.
- Garraio publikoko linea eta zerbitzu guztiak irisgarri direla bermatzea, eta garraio-emakidek irisgarritasuna betetzen dutela garantizatu.
- Taxien gutxieneko ehuneko bat –% 10– pertsona guztientzat irisgarriak direla eta eguneko 24 orduko zerbitzua emango dutela bermatzea.

4.- Berdintasunezko inklusiorako politika publikoak sustatzea, betiere partizipatiboak eta kalitatezkoak

- Administrazioaren politika eta sail guztietan, dibertsitate funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, ikuspegi integratzaile eta ez-asis-tentzialista bati jarraikiz.
- Erakundeetan zein jendartean sektoreko eragile guztien parte-hartze aktiboa sustatu eta erraztea, kolektiboaren barruko emakume eta talde espezifikoek zailtasun bereziak kontuan hartuz.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizitza independenterako programak martxan jartzea, eta bizitza independenterako erreferentziazko zentroak sortzeko aukera sustatzea.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat fiskalitatea berrikusi eta hobetzea, batez ere % 65etik gorako desgaitasun-maila dutenentzat, baita dibertsitate funtzionaldun pertsonak dituzten familientzat eta haien elkarte edo kolektiboentzat ere.

5.- Hezkuntza-eremuan neurriak bultzatzea

- Ikastetxe guztietan arreta goiztiarra eskaintzeko baliabideak eta laguntzak jartzea.
- Hezkuntza ez-formalaren eremu guztietan –tailerrak, ikastaroak, helduen hezkuntza, eta abar– hezkuntza inklusiboa sustatzeko neurriak hartzea.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen hezkuntza-proiektu guztietan parte hartzeko aukera dutela bermatzeko behar diren baliabide guztiak jartzea.

6.- Osasunaren eremuan neurriak bultzatzea

- Osasun-zentro guztietako oztopoak kentzea, eta dibertsitate funtzionala duten pertsona guztiei informazioa eskuratzeko eta izapide eta gestioak egiteko aukera bermatzea, administrazio- eta osasun-alorreko langileei horretarako prestakuntza eskainiz.
- Diagnostikoan, tratamenduan eta bideratzean eta laguntza teknikoen finantzaketan ageri diren aldeak kentzea.

7.- Kirolaren, kulturaren eta aisiaren eremuetan neurriak bultzatzea

- Aisia-programa publiko egokituak sustatzea.
- Kirola egin dezaketela eta aisia-jardueretan parte har dezaketela ziurtatzea. Instalazioen erabilera, azpiegiturak eta ordutegiak ezagutzea, herritar guztiak haietara berdintasunez iristeko aukera dutela aztertzeke.
- Herri guztietako haur-parkeak dibertsitate funtzionala duten haurrentzat egokituta daudela bermatzea.
- Kirol egokitua maila guztietan sustatzea: eskolan, eskolatik kanpo, oinarrian, amateurretan eta profesionaletan.
- Kudeaketa publikoa duten museo, arte-zentro, gizarte- edo kultura-etxe eta kirol-instalazio guztien irisgarritasuna bermatzea

Etxebizitza

Diagnostikoa, kokapena

EH Bilduren helburuetako bat eta bere udal mailako eta udalaz gaindiko ekintza politikoaren funtsezko arrazoietakoa bat herritarrentzat bizi-baldintza duinak lortzea da. Horien artean, besteak beste eta nahitaezko baldintza gisa, etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria izateko eskubidea dago, eta horixe adierazi izan dugu sortu ginenetik, gure ekintza politikoaren helburu estrategiko gisa bilduz.

Etxebizitza, eskubide subjektibo gisa hartu ordez, ondare espekulatibotzat hartu da eta, ondorioz, askorentzat ezinezkoa bilakatu da etxebizitza bat eskuratzea, ez salmentan, ez eta alokairuan ere, eta milaka familia kale gorrian geratu dira kaleratze prozesuengatik. Lehenetsuna ez da izan herritarren beharrak asetzera, interes espekulatuak babestea baizik, eta bada garaia pertsona orok etxe duin eta egokia izateko duen eskubidea lehenesteko.

Eta hau gazteen errealitatera ekartzen badugu, egoera askoz okerragoa da. Gure gazteek beraien bizitza proiektuak aurrera eramateko dituzten zailtasunak nabariak dira, eta gaur gaurkoz arduraz begiratzen diote etorkizunari. Emantzipaziorako erabakia hartzea oso zail ikusten dute, honek dakartzan ondorio gutzietan, jendarte osoari eragiten digutenak. Beraz, gure apustua sendoa izan behar da, gazteen emantzipazioa errazteko eta ahalbidetzeko neurriak hartu behar dira, baita etxebizitzari dagokionean.

Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzen duen eta eskubide hau betetzeko moduak eta exijitzeko baldintzak definitzen dituen Etxebizitza Legea onartu zen. Lege aurrerakoia, tresna oso egokiak eskaintzen dituena etxebizitza politika aurrerakoi bat aplikatu ahal izateko, eta herritarrentzat, batez ere behar handienak dituztenentzat, onuragarria izango dena. Baina bere osotasunean garatu beharra dago, eta Jaurlearitzaren esku dagoen garapen hau oso motel doa.

Ezin dugu bereizi etxebizitzaren gaia kokatua dagoen hirigintza plangintzetatik. Herri eta hiri bakoitzean, eskubide subjektibo honi irtenbidea eman behar diogu, bakoitzak dituen ezaugarri eta beharrei egokিতuta beti ere. Horretarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, ekainak 30eko EAeko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeak dioenera egokituta izan behar dira, honek dituen eraginengatik etxebizitza

plan egokiak burutzeko unean. 2021eko irailak 20erako udalerrri guztiek Hirigintza Antolamendua onartua izan behar badute ere, udal asko dira egokitzapena tramitatzen hasi ere egin ez direnak.

Bestetik, herritarrek sufritu izan dituzten bi gaitz ditugu oraindik konpondu gabe, etxe kaleratze kasuak eta abusuzkoak direlako baliogabetu diren klausulak aplikatu izanak sortu dituzten kalteak. Behingoz, egoera injustu hauekin amaitu beharra daukagu. Eta gainera, azken urteotan beste eraso bat pairatzen ari dira hainbat herritar, alokairua ordaindu ezinik aurkitu diren ehunka familia etxe kaleratuak izan baitira, hauetako asko erakunde publikoetatik.

Helburu orokorra

Etxebizitzaren funtzio soziala berreskuratzea dugu helburu. Eta horretarako gure esku ditugun mekanismo guztiak erabiliko ditugu, etxebizitza legea bera eta hirigintza direlarik ardatz nagusienetarikoa.

Onartuta dagoen Etxebizitza Legearen garapena sustatzea eta exijitzea izango da gure lehentasunetarikoa bat, bere osotasunean, kontu handia izanez etxebizitza duin bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa, edo subsidiarioa izango den prestazio ekonomikoa, arautuko duen dekretuarekin, batez ere prestazioei dagokienean, orain arte prestazioak jaso dituztenei ez diezaieten inolako murrizketarik suposatu.

Hirigintza lurzorua kudeaketa integrala helburu duen funtzio publiko bat da, hirigintza, kultura eta ingurumen eraldaketan bere funtzio soziala betearaziko duena. Lurzorua erabilera-politiken ikuskapen, kontrol eta egikaritzapenari lotuta egon behar du gainera, justizia sozialeko, ingurumen-jasangarritasuneko, lurralde-elkartasuneko, genero-ikuspegiko, eragin linguistikoko eta herritarren parte-hartze-ko irizpideak kontuan izanik.

Definizio hori ezarrita egonik, administrazio publikoek, hirigintza-plangintzaren bitartez, honakoak bermatu beharko dituzte besteren artean: Lurzorua jabetza interes publiko komunitarioen mende jartzea, etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri eskubidea, lurzorua ez erabiltzea espekulazio ekonomikorako, eta Hirigintza-plangintza gizarte-premiei aurre egiteko erabiltzea, hala nola etxebizitza duina, ekipamendu publikoak, garapen ekonomiko orekatua, hiri eta natura-ingurune ekologikoki jasagarria eta premietara egokitua, baita kultura eta natura-ondarea osatzen duten ondasunak gozatzea.

Egungo etxebizitzaren beharrari eta egungo etxebizitza-parkeari buruzko diagnostikoa egitea izango da gure beste lehentasunetako bat; ahalik eta modu zientifikoenean kuantifikatuz hutsik dauden etxebizitzak. Hau da modu bakarra herritarrek duten etxebizitza beharrei erantzungo dizkien neurriak ezarri ahal izateko, alokairuzko parke publikoa zabalduz batetik, hutsik dagoen etxebizitza kopurua mugituz bestetik, etab.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Etxebizitzari buruzko legearen garapen integrala bermatuko dugu, udalei dagokien esparruan, eta horretarako hainbat neurri planteatuko ditugu

- Diru publikoarekin eraikitzen diren etxebizitzak alokairura bideratzea, eta helburu berarekin sustapen pribatukoekin akordioetara iristea saiatur.
- Orain arte saldu ez diren parke publikoko etxebizitza guztiak alokairuan jartzea, udal-hitzarmenak bultzatuz neurri hori gauzatu ahal izateko.
- Jenderik gabe dauden etxebizitzaren errolda bat sortzea, Erkidego mailakoa izango den jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa elikatuko duena, etxebizitza horiek alokairu publikoko merkatuan mugitzeko helburuarekin.
- Jenderik gabeko etxebizitzari aplikatuko zaien kanona arautzea udal mailan, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, egin behar duen garapenarenarekin bat etorritik.
- Bitartean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan errekaratuak ezartzea, hutsik dauden eta ohikoak ez diren etxebizitzentzat. Neurri hau aplikatzeagatik bildutako dirua bere osotasunean etxebizitza politikerara bideratuko da.
- Hutsik dauden etxebizitzak berraktibatzea, hutsik dauden etxebizitzaren jabeen eta erakundeen arteko hitzarmenak sustatuz.
- Gutxieneko diru-sarreraren eskakizuna kentzea, edo behintzat minimizatzea, alokairuko etxebizitza bat lortu ahal izateko, horrela zailtasun handienak dituzten pertsonen etxebizitza bat eskuratzeko aukera ez ukatzeko.
- Alokairu sozialaren ordainketa errazteko baldintzak egokitzea: inork ez dezala bere diru-sarreraren % 30etik gora ordaindu, ezta % 15etik gora ere lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik ko-bratzen dutenen artean.
- Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea betetzea, besteak beste praktika txarrak saihesteko ere, adibidez merkatu beltzean iruzurrezko transmisioak.
- Okupazioari dagokionean, EH Bilduk bere errespetua adierazten du Euskal Herrian ematen ari diren okupazio dinamikekiko, eta hauen kriminalizazioaren aurka azaltzen da irmoki. Ondorioz, okupazio dinamika hauek konpontzeko zailtasunak dakartzaten egoerak azaleratzen badituzte (interes espekulatuzaileak, etxebizitza beharrari aurre egiteko modu ezberdinak,...), elkarrizketaren bidez konpondu beharko dira.

2. Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, ekainak 30eko EAEko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeak dioenera egokituko ditugu, eguneratuak ez dituzten udaletan, honek dituen eraginengatik etxebizitza plan egokiak burutzeko unean

- Honetarako, “Etxebizitza eta honi loturiko hirigintza-plangintza” dokumentuan jasotakoak oinarri hartuko ditugu.

3. Etxebizitza politikan birgaitzeak, eta orokorrean eraikuntzak berak, duen garrantziagatik, hainbat neurri proposatzen ditugu arlo honetan

- Etxebizitzen birgaitzerako neurriak sustatu, beraien funtzio soziala bermatzeko eta baldintza duinak betetzen dituztela ziurtatzeko helburuz, kontuan izanik efizientzia energetikoa, ingurumenaren zaintza, irisgarritasuna eta segurtasunarekin erlazionaturiko neurrien sustapena kontuan izanik.
- Aurreikusten diren neurriak borondatez aplikatzeari uko egiten dieten kasuetan, udalek, bakarrik edo beste administrazio publiko batzuekin loturiko akordioen bidez, beharturiko birgaitzearen bidea garatuko dute, ondare higiezinak optimizatzeko, beharrezkoa ez den lurzorua ez okupatzeko eta birgaitzen diren etxebizitzek irisgarritasun eta bizigarritasun baldintza duinak betetzen dituztela bermatzeko helburuz.
- Eraikuntzaren kode teknikoa eta aplikagarria den araudiaren betetzea bermatu, gure herrien efizientzia energetikoa handitzeko eraikinetan energia berriztagarria biltzeko sistemen instalazio sustatuz.
- Etxebizitzen segregazioa ahalbidetzeko araudia aldatu, eraikinak gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko helburuz, honela eraikitakoaren bolumena handitu gabe etxebizitza gehiago lortuko direlarik.
- Eraikitzeko baliagarria izango den lurzoru poltsa bat sortzeko lan egin (lurzoru publikoaren bankua)
- Ondare higiezin eta lurzoru publikoen jabetza bermatu. Horretarako, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza Legean jasotakoaz gain, aurrekontuaren portzentaje bat bideratuko da ondare eta lurzoru horien gehikuntzarako, alokairurako etxebizitza publikoa sustatzeko helburuz.
- Alokairurako babes publikoko etxebizitzen parkeak sortzeko beharrezkoak diren pausu praktikoak ematea, berauek eraikiaz edota hirigintza hitzarmen bidez eskuratu ahal direnak alokairura bideratuz. Eros-lehentasun eskubidearen bidez eskuratu ahal diren babesturiko etxebizitzen aukerak probestu, hauek alokairurako parke publikoa osatzera bideratuz.
- Gazte eta pertsona nagusien beharrak kontuan izango dituzten etxebizitza tipologia berrien alde egin eta sustatuko ditugu (etxebizitza kooperatibak, zerbitzu eta instalazio komunitarioak dituzten etxebizitzak, etab...).

4. Emantzipazioa erraztuko duten etxebizitza politikak sustatu eta indartuko ditugu. Horretarako hainbat neurri proposatzen ditugu

- “Gazte populazioaren mugimenduaren azterketa” egingo dugu herri guztietan, etxebizitza eskuratzeko zailtasunekin erlazionatua, bai etxebizitzak garestiegiak direlako, edota alokairurako babes publikoko etxebizitza eskaintza faltagatik.
- Gazteen behar espezifikoak kontuan izango dituzten etxebizitza tipologia berriak sustatuko ditugu (etxebizitza kooperatibak, zerbitzu eta instalazio komunitarioak dituzten etxebizitzak, etab...), aztertzen diren proposamenetan beraien parte hartzea sustatuz. Kontuan izateko adibide garbi dat dugu, beste batzuen artean, Oreretako udalak egin duen apustua.
- Zuzkidura bizitokiak sustatuko ditugu, gazteentzako zuzenduak eta errotazio sistema bat izango dutenak. Hirigintza efektuetarako etxebizitza normalek duten kontsiderazio ezberdina dutenez, ekipamenduetarako bideraturik dauden partzeletan sustatu daitezke, ez bizitegirako bideratueta-koetan.
- Alokairurako laguntza programak martxan jarri.

5. Kaleratzerik gabeko lurraldeak sortzen jarraituko dugu, esku-hartzerako protokoloak sustatuz

- Kaleratzeen aurka lan egiten dutenekin harreman iraunkorra mantenduko du udalak, eta partikulariki kaltetutako pertsonekin.
- Kaleratze prozeduren aurrean, udalak bere etetea eskatuko du, eta beste soluzio batzuk bilatzea proposatuko du.
- Gai honetan finantza erakundeek duten jarrera kontuan izango du udalak, eta dagozkion erabakiak hartu ahal izateko, erakunde hauekin duen harremana aztertuko du.
- Udalak ez du kaleratze prozedurarik sustatuko, ezta berauetan parte hartuko ere, eta suertatu daitezkeen arazoei aurre egiteko beste bide batzuk erabiliko ditu.
- Udalak, kaleratze bat sufritu dutenek beraien etxebizitzarako eskubidea aitortua ikusi ahal izan dezaten, beharrezko informazioa, aholkularitza juridikoa eta oinarrizko arreta eskainiko die.



ehbildu